




ZUTAZ

Puntuari erantzungo diogu,
kopla txikian. Horretarako,
orrialderantz begira jarriko
gara denok: bi oin ditugu
bistan, aukeran, gure
puntua sortzeko erabili
genitzakeenak. Bi oinak ozen
irakurriko ditugu.

Orain bai: irakasleak lehen
puntua abestuko du.

Ikasleak puntuari
erantzungo dio, nahi duen
oina baliatuta.



1 Zer da zure buruaz
gustatzen **ZAIZUNA?**

—
LAGUNA

—
TXUKUNA

2 Eta zer da aldatu
nahi **ZENUKEENA?**

—
PENA

—
TXARRENA

3 Ingurukoek zutaz
zer esaten **DUTE?**

—
NAUTE

—
URTE

4 Zer entzun nahi zenuke
zuk **LAGUNENGANDIK?**

—
NIK

—
ORAINDIK

5 Eta gaitasunetan
zertan zara **ONA?**

—
SAKONA

—
BROMA

6 Zer egiten gozatzen
duzu **NORMALEAN?**

—
KALEAN

—
EGINAHALEAN

7 Eta lagun batengan
zer bilatzen **DUZU?**

—
MUSU

—
KASU

8 Zuk zerekin sufritzen
duzu **GEHIENETAN?**

—
BENETAN

—
**JOLAS-
GARAIETAN**

9 Eta zuk zertan duzu
gurasoen **ANTZA?**

—
ESPERANTZA

—
ZALANTZA

10 Haserretzerakoan
nolakoa **ZARA?**

—
IKARA

—
PIKUTARA

11 Zure buruarekin
pozik al **ZABILTZA?**

—
BIZITZA

—
GILTZA

10 Zertan pasatzen duzu
denbora **LIBREA?**

—
ADISKIDEA

—
BIDEA

11 Zuk zerekin izaten
duzu beti **POZA?**

—
APROPOSA

—
BIHOTZA

12 Nolakoa izan nahi
zenuke **HANDITAN?**

—
SARRITAN

—
INBIDITAN

11 Gelan ze ikasgaitan
zabiltza **GUSTURA?**

—
BURURA

—
DUDA

12 Jarriozu nota bat
zure **BURUARI**

—
OPARI

—
ARGI